

## 1/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2016KO OTSAILAREN 29AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEORDEA

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Pello Estanga Lasa (EH Bildu taldea)  
Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)  
Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)  
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)  
Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)  
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

##### BITARTEKO IDAZKARIA:

Idoia Baraizar Otaño

Anoetako udaletxean, 2016ko otsailaren 29an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Izaskun Jauregi Saizar Alkateordearen Lehendakaritzapean, eta Idoia Baraibar Otaño andrea, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

#### 1.- 2015EKO ABENDUAREN 16KO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2015eko abenduaren 16ko udal plenoaren bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

#### 2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2015EKO AZAROAREN 16TIK ABENDUAREN 30A BITARTE ETA 2016KO URTARRILAREN 11TIK OTSAILAREN 15A BITARTE.

2015eko azaroaren 16tik abenduaren 30a bitarte eta 2016ko urtarrilaren 11tik otsailaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkateorde andreak, udalbatzakideak jakinaren gainean geratuz.

#### 3.- 2016KO EKITALDIAN LANGILEEN ORDAINSARIAK %1 GEHITZEA.

Gobernu taldeak, EUDELen proposamenean oinarrituz honako proposamena egien du:

2016ko ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirateke 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartura”.

Aho batez onartu da.

Igoera honek ondorioak izango ditu 2016ko urte hasieratik .

#### **4.- SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOA DELA ETA ADEIRAZPEN INSTITUZIONALA.**

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Aratz Luisa Urkolak irakurri du eta aho batez ondorengo adierazpen instituzionala onartzen da:

*“SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOA DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.*

*Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 2016ko otsailak 27an, 40. urteurrena bete dela eta Anoetako Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso tinkoa.*

*ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-uriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauetako 25.000 pertsonak etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.*

*UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.*

*Hori guztia dela eta, Anoetako Udalak ondorengo adierazten du:*

*1.- Berretsi egiten du RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legez duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOAren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa, NBEk hala aitortua.*

*2.- Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen die bultzatzea beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.*

*3.- Marokoko agintariei eskatzen die bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.*

*4.- Espainiako Estatuari eskatzen dio har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobeitza dezala Nazio Batuen Segurtasun*

*Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.*

*5.- Berretsi egiten du bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.*

*6.- Bene-benetan eskertzen du euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eramanez daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola den euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a. Anoeta, 2016 otsailaren 24ean”.*

## **5.- EMAKUME-GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA MOZIOA.**

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Josune Eizmendi Manterolak irakurri du eta aho batez ondorengo adierazpen instituzionala onartzen da:

*“Udalerrri eta Eskualdeetako Gobernuek bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunaren alde, Europar eta Munduan.*

*Europako Udalerrri eta eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarrizko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europar eta mundu osoan sustatzeko.*

*Emakumeen Nazioarteko Eguna honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira eta, Anoetako UDALBATZAK berea egiteaz gain berari dagozkion zehaztapenak egiten ditu:*

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan.*
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarrizko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da; eta EAEko agintariei dagokionez, 4/2005 BERDINTASUN LEGE AUTONOMIKOA integralki garatua izan dadin behar adina diru, partida eta arau aktibatzea eskatzen diogu.*
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkrituak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien boterearen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela. Udal honek bere aldetik, PAREKIDETASUN BATZORDEAREN bidez ziurtatuko du berdintasun jarduerak burutzeko aurrekontua onartu eta kudeatzea.*
- Emakumeek XXI. Mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa,*

*sexu-esplotazioa, indarkeria matxista eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak; Udal honek bere aldetik, indarkeria matxistari aurre egiteko behar adina partida eta neurri zehatz abian jartzeko konpromisoa hartzen du.- Anoetan, 2015ko otsailaren 25a”.*

## **6.- GAIKUNTZA NAZIONALEKO TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LEHIAKETA ARRUNTEAN, UDAL HONETAKO HUTSIK DAGOEN IDAZKARI LANPOSTURAKO MEREZIMENDU ESPEZIFIKOAK JARTZEA.**

Udal honetako Idazkari lanpostua 2015eko abenduak 1etik aurrera hutsik egonik, Gaikuntza Nazionaleko funtzionarietzat urtero ateratzen den lehiaketa arruntean, Udalak oinarri espezifikoko onartzeko ahalmena dauka eta Gipuzkoako Foru Aldunditik hori egiteko eskatu zaio udalari.

Aztertu dira Udal idazkariak araudi aplikagarria jarraituz proposatutako oinarri espezifikoko eta aho batez onartuak izan dira. Hauek dira:

### ***Lanpostuaren ezaugarriak:***

- 4. H.E. (derrigortasun data igarota).
- Maila: (Lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)
- Osagarri espezifikoa (lanpostu zerrendaren arabera dagokiona)

### ***1.- Proposatzen diren merezimendu espezifikokoak:***

#### ***1.1.- Emandako Zerbitzuak:***

- 3. Mailako idazkaritza lanpostuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan emandako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko (gehienez puntu 1).

#### ***1.2.- Ikastaro, master eta diplomak:***

- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatua, egindako 40 ordu edo iraupen luzeagoko ikastaroak, espezialitate juridiko-ekonomiko-administratiboari buruzkoak badira eta betebeharreko lanpostuarekin zerikusia badute: 0,1 puntu ikastaro bakoitzeko (0, 25 puntu gehienez).
- IVAP-ek edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde ofizialen batek antolatutua, egindako graduondoko unibertsitate tituluak, masterrak, etab.... Zuzenbide adminisnratiboari buruzkoak eta gutxienez 200 orduko iraupenekoak badira: 0,1 puntu titulu bakoitzeko (0,25 puntu gehienez).

*Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:*

- *Emandako zerbitzuak: zerbitzuak eman direneko Toki Administrazioak egindako ziurtagiri bidez.*
- *Ikastaro eta diplomak: jatorrizko titulo edo diplomen kopia konpultsatu bidez.*

*Elkarrizketa: Bai (Ez da aurrirakusten zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan etorrien gastutarako).*

## **2.- Epaimahaiaren osaera:**

- *Mahaiburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izendatutako kide bat*
- *Mahaikideak:*
  - *Gaikuntza nazionala duen Toki Administrazioako funtzionario bat, , deitutako lanpostuaren maila berekoa edo handiagokoa.*
  - *Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat.*
  - *Idazkari: Mahaikideetako bat.*

## **7.- GALDE-ERREGUAK**

Galde-erregu garaian, EAJ talde politiko bozeramailea den Kepa de la Iglesia jaunak adierazten du 2014 urteko likidazioaren dekretua berri emateko zegoela eta pleno honetan ez dela aurkeztu.

Bitarteko idazkariak erantzuten du kontu emandako dekretuen artean dagoela (bigarren puntuan) baina ahaztu egin zaiola banakako puntu berezi bezela sartzea eta hurrengo bilkuran, martxoaren 21ean, sartuko duela.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateordeak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.